

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 10 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar duzu, eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	70 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak betetzeko (1, 2, 3...) zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago**.

ANTROPOLOGIA ETA EUSKAL MATRIARKATUA

Argi eta garbi esan behar da gaur-gaurkoz ez dugula inolako froga historikorik baieztatu ahal izateko iraganean sistema matriarkal bat egon zenik, ez hemen, ez inon. Gainera, terminologia bera taxuz erabili behar dela uste dugu. Matriarkatua eta matrilinealitatea ez dira inondik inora gauza bera. Matriarkatuaz hitz egiten dugunean, emakumeen gobernuaz ari gara; matrilinealitateaz jarduten dugunean, aldiz, amaren aldeko lerroaren nagusitasunaz, bai oinordetza-sisteman, bai norberaren izaera sozialean. **1**

Euskara da euskal matriarkatuaren teoria defendatzen dutenen artean aipatzen den gaietako bat. Hala, esaten da euskara inklusiboagoa dela eta euskarari ez dela «beste hizkuntza askori darien patriarkalismoa ikusten». Hizkuntza-antropologiak adierazten duenez, hizkuntza bat errealitate baten ispilu edo isla den era berean, bada kultura eraikitzekeo erreminta nagusietako bat ere. Beste era batean esanda, genero aldetik «neutroa» den hizkuntza bat gizarte-egokitasunak iraunarazteko baliagarria daiteke. Beraz, hizkuntza ez dago testuingurutik aparte. Osterantzean, gaur egun zabaldurik dagoen hizkera politikoki zuzena 500 urte barru aztertuko balitz, ulertuko litzateke gizarte guztiz berdinezale batean bizi garelako egun.

Beste aldetik, goraiatzen dituzten «baserrietako amama eta ama burujabeagoi» dagokienez, esan daiteke ezin laburrago gelditu ohi zaizkiela eguneko hogeita lau orduak izan duten eta duten lan guztia amaitu ahal izateko, baina estatistikek argi utzi digutenez, hortik ateratzen duten errenta gizonen errentaren erdia baino ez da. **2**

Mari pertsonaia mitologikoari dagokionez, gogoratu behar da Barandiaran izan zela izen hori eman ziona, 1922. urtean, euskal mitologiaren erdigunean kokatuz. Baina jakin badakigu mota horretako figuren presentziak, interesgarria izanik ere, ez duela esan nahi hezur-haragizko emakumeek boteretik edo agintaritzarik (izan) dutenik. **3** Eliza katolikoak Ama Birjinarekin egiten duen erabilpena horren adibide paradigmaticoa litzateke, Ama Birjinaren gurtza emakumeak ardura- eta botere-postuetatik baztertzearekin uztartzen baita inolako arazorik gabe.

Beste gai batera etorritik, Euskal Herriaren historian topa daitezke, bai, oinordeko izan diren emakumeen kasuak. **4** Eta halako irakurketa egin nahi duena jabetu behar da Historiaren oinarriak gabeko interpretazio zehatz bat egiten ari dela.

Hiru hamarkada baino gehiago daramatzagu Euskal Herriko ikertzaile feministak bertan bizi garen emakumeon inguruko analisiak egiten eta informazioa sakontzen eta zabaltzen. **5** Horri gehitu behar zaizkio bertsoaritzan, literaturan, artean eta sorkuntzan orokorrean egiten ari diren ekarpenak. Ondare horren guztiaren ondorio nagusi bi azpimarra daitezke: ez dagoela euskal emakume bakarra, askotarikoak baizik, eta parekidetasunetik urrun gaudela.

DIEZ, Karmen eta ESTEBAN, Mari Luz. Berria, 2019-01-04a. Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A.** Euskal Herrian ez da egon matriarkaturik, baina guk sinestu egin dugu, eta horrek kalte handia egiten digu, ez daukagulako gure benetako irudiaren neurririk.
- B.** Aldiz, egiaztatu daiteke ikono horiek gure garaian agertzen diren kulturetan gizonezkoek erabili ohi dituztela emakumezotasunaz jabetzeko, haiek dauden postu edo espazioetara emakumeei sarrera oztopatuz edo ukatuz.
- C.** Baina euskara, baserria, mitologia, oinordetza eta abarreko arloetan dauden datu horietatik ezin da txiribuelta-jauzi mortalik egin eta ondorioztatu matriarkatu bat edo gizarte parekide bat existitu zenik.
- D.** Egia da patrilinealak edo mistoak baino urriagoak diren sistema matrilinealetan emakumeek erabakimen handia izan ohi dutela, baina horrek ez du esan gura amaren aldeko gizonezkoek ez dutenik esku-hartzerik edo botererik, zeina, hainbat kasutan, emakumeena baino harantzago doan.
- E.** Horrez gain, ezin da ahaztu gizonak izan direla plazan negoziokoak egin dituztenak eta, noiz edo noiz, baserria jokatu eta galdu ere egin dutenak.
- F.** Horren froga dira gure liburutegietako apalak betetzen dituzten liburuak eta aldizkariak.

■ **Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:**

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak					

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau **ez da jaso behar erantzun-orrian.**

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

FUNANBULISTAK IZURRIAREN ISPILUAN

Irudipena dut COVID-19aren izurriak, eragin duen molde eta eskala ugaritako hondamendi zehatz eta gorpuztuez harago, baduela ispiluaren aurreko errebelaziorik. Berarekin atoaan ekarri duen salbuespen-egoerak egunerokoan barne-zokoetan pilatu zaizkigun uste eta balioen inertziaz jabeaz gaituela, eta, bidenabar, geure baitako egia ezikusiez: heriotzaren ezinbestekotasunaz, jendeon zaurgarritasun eta txikitasunaz, besteen eta elkarrekikoaren premia, naturaren garaiezintasun eta beharraz...

Egia horiek denak jarri dizkigu parez pare, egutera zein laiotzean. Esaterako, jabeaz baikaitu emateko zein hartzeko dugun gaitasunaz edota elkarrekin aritzeak dakarzkigun onurez. Baina jabeaz gaitu, halaber, gure eredu ekonomiko eta sozopolitikoaren egiturazko akatsaz. Ikusi ez ezik, antzeman ere egin dugu nola ekoizpen, kontsumo eta ustiapen hazkor eta gerezinean oinarritzen den gure bizimodua, balio zein desirekin, gaitzera kondenatuta gaudela; gaitzera kondenatuta daukagula geure burua, besteena eta Lurrarena. Jabeaz gaitu, bristada batez.

Baina gutxi du berritik. Aspalditik geurekin daramagun egia ezkutua da –akaso, ukatua– eutsiezina dela bizi gaituen eta bizi dugun eredu. Birus formarekin lehertu zaigu orain ebidentzia, baina, azkenaldian, klima-aldaketak –eta hari lotutako desazkundearen proposamenak– ezker alternatiboaren ideiak ezaugarri bereizgarri izateari utzi dio eta egitate neutroaren izaera hartua du, munduko agintarien eta zentzuzko pentsamenduaren agendan sartzeraino. Besterik da agendan sartzeak larrialdi handienari erantzuteko txaplata batzuk jostez haragoko aldaketarik dakarren, eta zenbateraino diren proposatzen eta aplikatzen diren berrikuntzak Lampedusaren II gattopardokoaren harikoak, hau da, denak, funtsean, berdin segi dezan bermatzeko egindakoak.

Izurriak eragindako errebelazioak ere, honezkero, hartua baitu horren tankera: ez da zantzu hutsala izurri-garai hau izendatzeko, berria normalitatearekin uztartzeko hautua egitea; hau da, aldaketaren adiera bere baitan ohikoaren, aldagaitzaren eta inertziaren soinua duen hitzarekin. Normalitate berria, funtsean, lehengo eredu itzultzea baita: ekoizpena, kontsumoa eta ustiapena ardatz dituen bizimodu eta desiretan gotortzea. Oraingo, berritasuna, norberaren gaineko kontrol-neurriak areagotzeari baimena ematea izatean ari da, eta, orobat, aldarrikapen bihurtzea besteen gaineko kontrol-neurriak areagotzea. Aspalditik datorkigun ‘askatasuna segurtasunaren truke’ eredu beste koxka bat estutzea.

Aldiz, zabaldu den ideia beste bat da: izurria mugarri erabatekoa dela, lehenagoko munduaren eta aurrekoarekin apenas ikustekorik duen oraingo berriaren arteko 0 gunea. Bestelakoa da, ordea, nire irudipena: lehendik datozen joeren indartzea dela nagusiki COVID-19aren pandemiak ekarri duena; arestian aipatu dudan askatasunaren lagapenaren areagotzea ez ezik, lehendik abiatutako bizimoduaren eta geure buruaren digitalizazioa eta birtualizazioa ere irmotu dela: telelana, teleirakaskuntza, telekontsumoa, teleharremanak eta, batez ere, bizitzaren prekarizazioa.

Azken finean, aspalditik gara funanbulistak, hari hauskor baten gainean tente segitzea beste asmorik ez dugunak bizitzan, kosta ahala kosta, bakoitza berean, ahalik eta luzean. Bestela, ez da ulertzen nola ez garen egiaz errebelatu izurriaren ispiluak ikusarazi dizkigun gure miseria gordinen aurrean. Esaterako, nola otzantasunez onartu dugun gure kide zaurgarrienak, zaharrak, bakarrik hiltzea, ahazturik bizitza egokiak ezinbestekoa duela heriotza duina. Nola ari garen lehenesten iraute-politikak, bizitza-politikak zer diren pentsatu eta eraiki beharrean.

Ez da erraza bizi dugun garaia. Lehendik pilatutako joera eta inertzia prekarizatzaileei izurriak erantsitako arlo askotako ziurgabetasuna erantsi behar zaie. Hasteko, gaitzaren beraren nondik norakoari buruzkoa. Horrexegatik uste dut dela inoiz baino beharrezkoagoa irudimena, funanbulistez

haragoko izate osoago baten zirrimarra eta desira sortzeko. Irudi berri hori osatuko bada, bizitzak zein jende izateak bestelako esanahi bat hartuko badute, ezagutza, pentsamendu, solas, gorpuztasun eta arte-adierazpenen elkarbanatzea inoiz baino premiazkoagoa zaigu. Hau da, inoiz baino beharrezkoagoa zaigu plaza, mundua, hurkoa zein bestea ezagutzeko eta aintzat hartzeko lekua. Ez dezagula halakorik gal!

ESKISABEL, Idurre. *Berria*, 2020-07-17.
Egokitua

6. Konfinamenduak zertaz jabearazi gaitu?

- a) Gure bizimoduaren zentzugabetasunaz.
- b) Gure balioen ahultasunaz.
- c) Ohartu gabe bazter uzten dugun errealitateaz.

7. Eskisabelen iritziz, orain arteko bizimoduak nora ginderamatzan?

- a) Kontsumismora.
- b) Galbidera.
- c) Eredu ekonomiko eta soziopolitikoaren akatsak birplanteatzera.

8. Zer uste du Eskisabelek orain begi-bistan geratu diren zenbait ebidentziaz (klima-aldaketa..)?

- a) Susmoa du ez ote diren erabiltzen ari betiko bideari eusteko estrategia gisa.
- b) Eskuinak amore eman duela ezkerren ikur izan diren ebidentzien aurrean.
- c) Agintarien agendan sartu izanak asko esan nahi duela ebidentziek duten indarrak.

9. Zer-nolako jarrera du Eskisabelek testu honetan?

- a) Kezkatia eta kritikoa, itxaropen gabea.
- b) Kritikoa, ez du ulertzen jendea kexatu ez izana.
- c) Eszeptikoa, biziraupena askiesten du.

10. Egoera zail honetatik ateratzeko zer egin behar dugu Eskisabelen ustez?

- a) Funanbulistak bezala, aurrera egiten saiatu bakarka bada ere.
- b) Funanbulista izaten jarraitu, arriskuari aurre egiteko prest.
- c) Funanbulista izateari utzi eta errealitatean errotu gure bizimodua.

Ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

Oharrak

- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRE TARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

TESTU AIPAMENAK

1.

ENPRESEN KODE ETIKOA ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Enpresen interes-taldeak gero eta sentikorragoak dira, ekonomia eta gizarte gero eta globalizatuagoan, enpresa-ekintzek sortzen dituzten ondorioez. Hori horrela delarik, gero eta enpresa gehiagok ezartzen dituzte, inguruneak bultzatuta, erantzukizun sozial korporatiboko politikak (lanpostuak sortu, ingurumena zaindu...), eta prestatzen dituzte erakundearen jardura etikoak gidatzen dituzten printzipioak jasoko dituen agiria: enpresaren kode etikoa.

Aditu askoren ustez, XXI. mendean ez da kontu hutsala enpresan kode etikoa ezartzea, horrexetan baitautza hein batean enpresaren iraupena eta arrakasta. Hala ere, askotan jardura horiek kosmetika edo filantropia hutsa dira, zeren askotan ez dute zerikusi handirik enpresaren egiazko ikuskera etiko batekin. Ikuskera horri esker bereganatuko du enpresak zuhurtziaz eta justiziaz jarduteko xedea, eta jardura horien gaineko erantzukizuna.

MUÑOZ-MARTIN, Juan. *Ética empresarial, Responsabilidad Social Corporativa (RSC) y Creación de Valor Compartido (CVC). 2013. Egokitua*

2.

DOAKO KULTURAREN ARRISKUAK: HIGADURATIK ERORKETARA

Argitaletxe, museo, arte-zentro, irakasle, egunkari, diskoetxe eta artisten eskutik pandemia-garaian izan dugun doako edukien kanoikada, beltzargaren kantua izan daiteke 2008ko krisiaren ondoren jota geratu zen sektorearentzat. Izan ere, ezin ukatu kultura-industria deitu arren, izen harranditsu horren atzean aritzen diren enpresa gehienak autoenplegu prekarioko ekimen txikiak baino ez direla.

Egoera horretan, kontua ez da esku-hartze publikorik izango denetz, baizik eta zer ezaugarri politiko izango dituen: bankuak eta enpresa handiak erreskatatzeko baztergarritzat jo daitekeen sektoreetako bat izango da Kultura ala beste irtenbide batzuen alde egingo da?: eduki-plataformen botere monopolista zalantzan jarriko dituzten alternatiba publikoak, bidezko eta arrazoizko ordainsariak, egile eta bitartekarien eskubideak kudeatzeko erakundeen nazionalizazioa, kooperatibismo kulturala bultzatzeko apustua eta praktika kulturalen babesa.

RENDUELES, Cesar. *El Pais*, 2020-03-21. Egokitua

3.

DELITUAREN ETA ABUSUAREN ARTEKO MARRA FINA

Poliziek eta Mossoek ‘agintaritzaren aurkako atentatua’ delituagatik zigorrak gogortzeko eskatu dute; legea aldatzeko, agenteen aurkako erasoak ugaritu egin direla eta. “Agintaritzaren agenteei egindako atentatuen tratamendu judizialak erakusten du protokoloak berrikusi eta legeak aldatu egin behar direla agenteak babesteko” diote. “Autoritatearen agenteei tu egitea edo min ematea ezin dira doakoak gertatu”.

Rights International Spain (RIS) ere zigor kodea berrikustearen aldekoa da, baina oso bestelakoak dira bere arrazoiak: legeria aurreikusgarriagoa eta zehatzagoa izan behar da kasu arbitrarioak edota neurritz kanpokoak saihesteko, ezin dira “segurtasuna” aitzakiatzat hartuta herritarren eskubideak bortxatu; eta justizia-auzitegiek ezin dute tratatu txarren eta autoritate-abusuaren edozein zantzuren aurrean, beste alde batera begiratzen jarraitu.

SELA, Luz. *OKdiario*, 2018-03-28 / RIS. *Series Analisis Jurídicos*. 2014ko apirila. Egokitua

4.

NAZIOARTEKO ZIGORREN EFIKAZIA ETA MORALA

Zigor ekonomikoak nazioarteko gobernuen edo erakundeen esku dauden mekanismoak dira, beren interesei eragiten dien edo nazioarteko arauak urratzen dituen beste estatu —enpresa edo talde— baten erabaki estrategikoak aldatzen saiatzeko.

Koronavirusaren krisiak kanpo-politikako estrategia asko birpentsatzera behartu du; besteak beste, uneotan pandemiak gogor erasandako herrialdeen aurkako zigor ekonomikoak. Kritikoek neurriak gaizki pentsatuta egon ohi direla diote, eta gutxitan lortzen dutela zigortzen duten jokabidea aldatzea; zigorren aldekoek, berriz, defendatzen dute haien eraginkortasuna handitu egin dela azken urteotan. Nazio Batuen Erakundeak neurri horien zati handi bat aldi baterako bertan behera uzteko deia egin du, baina orain arte Estatu Batuek, neurriak sustatzaile nagusiak, ez diote jaramonik egin.

Askotan eta askotan dira halako zigorrak jasan dituzten edota jasaten ari diren herrialdeak, eta herrialdeon erantzuna ere askotarikoa da herritarren nahia eta goztoa ere oso bestelakoak baitira batzuetan.

**Askoren artean. *El Pais*, 2020-04-04.
Egokitua**

5.

SARE SOZIALAK ETA KAZETARITZA

Sare sozialak kazetariok dugun hornikuntza-merkatua dira, egunero ateratzen gara bertara generoa saltzera. Baina sarbide libreko merkatu bat da, eta bizitza osoko dendarien ondoan, era guztietako mezuak zabaltzen diren hiritar sorta bat ere badago.

Facebook, whatsapp... gure oso antzeko jendearen informazio-burbuilak baizik ez dira, pentsatzen duguna berrelikatzen digutenak; izan ere, desberdin pentsatzen duen sareari ez zaio jaramonik egiten, eta algoritmoak atsegin izateko gehien gustatzen zaizuna erakusten dizu. Ez da iritzi desberdineko mundua, baizik eta askotariko burbuilaz osaturiko ustezko globaltasuna.

Iritzi publikoa polarizatzeko arrisku nabarmena nabari da. Beti egon da gaizki informatutako jendea, baina inoiz ez dut hain argi izan. Eta herritar desinformatua baino arriskutsuagoa da hala dagoela ez dakiena.

**GARCIA, Maria. <<nobbot.com>> 2018-06-01.
Egokitua**

6.

OBULUEN DOHAINZA SISTEMA

Azken urteetan, lagundutako ugalketa asko hazi da, eta material biologikoaren inguruan merkatu-hobi berriak sortu dira. Espainiako Estatuan jaiotzen den haurren % 8 da ugalketa lagunduen bidez jaioa, eta in vitro tekniken bidez jaiotakoen artean lautik bat dohaintzan emandako obuluei esker sortu da. Baina kontua haratago doa. Espainiako estatuak obuluen donazio-sistema askoz merkantilizatuagoa du inguruko estatuak baino; anonimoa da, eta konpentsazio ekonomikoa eskaintzen zaio emaileari. Estatu batzuetan, Alemanian kasu, debekatua dago. Beste batzuetan, Portugalen edo Erresuma Batuan, adibidez, donazioa ez da anonimoa. Herrialde batzuek ez dute konpentsazio ekonomikorik eskaintzen, Frantzia, esaterako. Espainian, berriz, baldintza guztiak betetzen dira klinika pribatuek negozioa egin dezaten, estatuko bertako kontsumoaz zein ugalketa-turismoaz.

**ARTETXE, Miren.<@mirenartetx>. 2021-01-17.
Egokitua**

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** txertatu testu zatia.

■ **Irakurgaia:** «ANTROPOLOGIA ETA EUSKAL MATRIARKATUA»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak	D	E	B	C	F

Soberakoa	A
-----------	---

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «FUNANBULISTAK IZURRIAREN ISPILUAN»

6.	C	7.	B	8.	A
9.	B	10.	C		